

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko abenduaren 10etik 16ra arteko astea.**

## **I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:**

### **E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)**

**2022/12/14**

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** 2022ko azaroaren 10eko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, kolektiboetarako jotetxeen hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **21174 xedapena - 127 or.**

## **II.- XEDAPEN OROKORRAK:**

### **E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)**

**2022/12/14**

- **PRESIDENTETZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA MEMORIA DEMOKRATIKOKO MINISTERIOA. Esne-sektorea.** 989/2022 Errege Dekretua, azaroaren 29koa, esne-sektoreko agenteen, esnearen mugimenduen eta ekoizpen primarioaren arloko lehen deskargara arteko kontrolaren erregistroari buruzko oinarritzko arauak ezartzen dituena. **21135 xedapena - 30 or.**
- **PRESIDENTETZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA MEMORIA DEMOKRATIKOKO MINISTERIOA. Animalien osasuna.** 992/2022 Errege Dekretua, azaroaren 29koa, abeltzaintzarako interesgarriak diren espezieetan antibiotikoak modu jasangarrian erabiltzeko jarduketa-esparrua ezartzen duena. **21136 xedapena - 10 or.**

**2022/12/15**

- **BARNE-MINISTERIOA. Mugak.** 2022ko abenduaren 13ko Ebazpena, Segurtasunaren Estatuko Idazkaritzarena, Ceuta eta Melilla hiriak zeharkatuz Espainian sartu eta Espainiatik ateratzeko gaitutako lehorreko postuak aldi baterako partzialki itxita edukitzen jarraitzea erabakitzen duena. **21188 xedapena - 2 or.**
- **HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIOA. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.** Ebaluazioa. 2022ko abenduaren 5eko Ebazpena, Hezkuntzako Estatu Idazkaritzarena, orientazio-aholkuen, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako

eskolaratzea bukatzean egin beharreko ziurtagiri ofizialaren eta hezkuntza-etapa horri dagozkion ebaluazio-agiri ofizialen ereduak ezartzen dituen, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioaren kudeaketa-esparruan erabiltzeko. **21189 xedapena - 80 or.**

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Antolaketa.** 2022ko abenduaren 5eko Ebazpena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, Gizarte Segurantzaren nahitaezko diru-bilketarako zenbait unitateren lurralde-eremua aldatzen duena. **21191 xedapena - 5 or.**

## 2022/12/16

- **OGASUNEKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Egun baliogabeak.** 2022ko abenduaren 1eko Ebazpena, Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzarena, Estatuko Administrazio Orokorraren esparruan 2023ko egun baliogabeen egutegia ezartzen duena epeak zenbatzeko ondorioetarako. **21309 xedapena - 4 or.**

## E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

## 2022/12/12

- **SEGURTASUN SAILA. AGINDUA,** 2022ko azaroaren 25ekoa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez argitara ematen baita ibilgailu motordunak alokatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoei nola bete behar dituzten erregistro-betekizunak eta Ertzaintza informatzeko betekizunak. **5340e xedapena - 6 or.**
- **SEGURTASUN SAILA. AGINDUA,** 2022ko azaroaren 25ekoa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez argitara ematen baita ostatu-jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoei nola bete behar dituzten erregistro-betekizunak eta Ertzaintza informatzeko betekizunak. **5341e xedapena - 7 or.**

## 2022/12/14

- **LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA. AGINDUA,** 2022ko azaroaren 25ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan automobiletan egiten den bidaiarien herriz kanpoko garraio publikoaren tarifa berriak onartzeko dena. **5387e xedapena - 2 or.**

## E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

**B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

**2022/12/12**

- **HERRI ADMINISTRAZIOZAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 138/2022 FORU DEKRETUA, azaroaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 28ko 139/2015 Foru Dekretua, urteko kontu bateratuak formulatzeko arauak Bizkaiko toki-sektore publikoaren esparruan sartzeko. **I-1051 xedapena- 44 or.**

**G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)**

**2022/12/14**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 4/2022 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 13koa, zeinaren bidez saiheste fiskaleko praktiken kontrako zerga aldaketak onesten baitira, Kontseiluaren 2016/1164/EB eta 2017/952/EB Zuzentarauekin bat etorritz (ATAD 1 eta 2). **07812 xedapena- 4 or.**

**2022/12/16**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 564/2022 Foru Agindua, abenduaren 5koa, zeinaren bidez onartzen baita berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren 587 eredua. **07665 xedapena- 13 or.**

**E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: [serviciosjuridicos@mutualia.es](mailto:serviciosjuridicos@mutualia.es)

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2  
HENAO, 26 - BILBAO